

2022ko Tolosako aurrekontuei buruzko elkarrizketa anitzak:

Zerk eskatzen du arreta berezia?

Nola saiatu erantzuten,
elkarrekin?



Irudia: www.jeanjullien.com

Lanketa partekatua

Saio irekia herritarrekin eta
Udaleko arduradun politiko eta teknikariek

2021eko azaroaren 3an, 18:00etatik 20:15era, Tolosako Kultur Etxeko topagunean

Testuingurua

Tolosako Udala 2022ko udal aurrekontuak prestatzen ari da.

Aurrekontu horietan udal barruko zein herritarren partaidetza txertatzeko helburuarekin, azken urteetan Tolosatzen prozesuaren bitartez landutako prozedura lehenengoz aplikatzen ari da Udala.

Illo horretan, Komunitatea eta Gobernantza saileko teknikari arduraduna den Garikoitz Lekuonak bere sarreran azaldu duenez, hainbat urrats eman dira urte hasieratik hona:

- Lehen seihilekoan 2022rako lehentasunezko erronkak zehaztu ziren Udal barruan, ikuspegi politiko eta teknikitik.
- Identifikatutako erronka horiek herritarrei aurkeztu zitzaizkien 2021eko ekainean –aurrez aurre eta *online* –, eta haien ekarpenak jaso ziren.
- Urriaren 2 lan-saioa egin dira Udal barruan, gobernu taldeko arduradun politiko eta arlo desberdinetako teknikari batzuekin. Bilera horietan, eta orain arte landu eta jaso denari erreparatuta, 2022. urtean arreta bereziki eskatzen dutela uste dugun 7+1 foku identifikatu dira.

Testuinguru horretan kokatzen da, beraz, bereziki herritarrei ere zabalduko gaurko saio irekia.

Gaurko saioaren helburuak

Definitutako markoan, 3 helburu nagusi izan ditu bilerak:

1. 2022rako aurrekontuei begira egindako entzute-ariketaren arabera, gaur egun Tolosan arreta berezia eskatzen duten 7+1 fokoak itzultzea.
2. 7+1 arreta-gune horiei erantzun emateko Udalak zer aurreikusi duen laburki azaltzea.
3. Bertaratutakoekin lantzea aurreikusitako hori zerbaitetan aberastu daitekeen; eta zer beste aztertu genezakeen 7+1 arreta-gune horiei erantzuteko -ahal den heinean, aurrekontuetan jasotzeko, eta ezingo balitz, datozen urteetarako lan-ildo modura bilduta gera daitezkeen-.

Saioaren emaitzak, beraz, 2022rako udal aurrekontuak zehazteko prozesuari ekarpena egiten dio: begirada anitzak batuz garatutako partaidetzaren ekarpena.

Era berean, udal aurrekontuak partaidetza txertatuz garatzeko prozedura elikatzen eta osatzen du gaurko urratsak.

Parte hartzaileak



Bereziki herritarrei zuzendutako saiora Udaleko ordezkariak –politikari zein teknikari- ere parte hartzera deituak izan dira, elkarrekin, eta bakoitzak Tolosarekiko duen begirada, bizipen eta tokitik, udal aurrekontuez aritzeko.

Gonbidapen irekiari erantzunez, 24 pertsona -12 emakume eta 12 gizon- bertaratu dira saiora; zehazki, honakoak:

Herritar eta eragileak:

- Ana Cuenca, Orixe ikastetxea
- Jose Ramon Zalakain
- Ima Perez, TIZ
- Axun Alkorta, Samaniego ikastetxea
- Ainhoa Azpeitia
- Haritz Nuñez, Kili-Kolo kooperatiba
- Xabier Izagirre
- Jose Rodriguez
- Alberto Luengo
- Arantxa Balerdi
- Olatz Ilarregi, Tolosaldea Garatzen

Udaleko teknikariak:

- Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantza
- Nerea Cereceda, Gazteria
- Jone Miner, Hirigintza, Azpiegiturak et Etxebizitza
- Ainara Irazusta, Gizarte-zerbitzuak eta Osasuna
- Xabier Cañas, Kultura, Gazteria eta Jaiak
- Mertxe Fernandez, Berdintasuna

Arduradun politikoak:

- Patxi Amantegi, zinegotzia
- Joseba Ormazabal, zinegotzia
- Nerea Letamendia, zinegotzia
- Andu Martinez de Rituerto, zinegotzia
- Aitzol Garcia, zinegotzia
- Izarne Iglesias, zinegotzia
- Joxe Mari Villanueva, zinegotzia

Prometea lantaldeko Iciar eta Zorione aritu dira bileraren gidaritza lanetan.




Guztioi, eskerrik asko!

Edukiak: gako eta emaitza nagusiak

I ATALA. Entzute-ariketarik, zeintzuk dira Tolosan 2022an arreta berezia eskatzen duten 7+1 fokueak?

Egindako irakurketan, honako **7+1 arreta-guneak** azpimarratu ditugu.




Parte hartzaileen ekarpenak

- Orohar, egoki ikusi dira 7+1 identifikatutako arreta-guneak.
- Puntualki aipatu da garrantzia honakoei ere ematearen beharra:
 - Etxebizitza, batez ere (eta ez bakarrik) gazteen kasuan.
 - Berdintasuna (lotu liteke 7. arreta-eremuarekin).
 - Kontsumo ohiturak: hauek ere lotura izan dezakete beste eremu batzuekin (klimate aldaketa, bertakoa...).
 - Zaintza komunitarioaren arloan, gizarte babesa eta kultur aniztasuna indartu eta babestea.

II ATALA. Udalak aurreikusi du 2022an 7+1 arreta-guneei erantzuteko?

Udaleko Komunitatea eta Gobernantza saileko Garikoitz Lekuona teknikariak azaldu ditu laburki, eta arlo desberdinekin udal barruan egindako lanketari esker, **Udalaren asmo nagusiak**; azpimarratuz, beti ere, 7+1 eremuei lotutako egitasmo esanguratsuenak direla (horiez gain beste lan-lerro asko eta anitzak landuko direlako Udaletik datorren urtean).

2022ko TOLOSAKO AURREKONTUEI BURUZKO ELKARRIZKETA ANITZAK TOLOSA 

Udalaren asmo nagusiak 2022rako, 7+1 arreta-guneetan

| | | |
|---|--|---|
| <p>1 Administrazioaren arintasun-eta gerturatzeko beharra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Udal barruko prozedura eta tramiteak arintzeko lanketa jarraitu. - Herritarrekin zuzenago aritzeko saiakeran jarraitu: UDATE etab. - Euskarazko komunikazioa. - Esperientzia pilotua: ArantzazuLab. | <p>3 Osasuna eta bizi-ohiturak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Usabalen aisialdu-gunea, ibaiarekin lotura eta espazio publiko osasungarria. - Gurpil-gunea Zumargi Handian, aukera berriak zabalduz. | <p>6 Gazteak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haur, gazte eta nerabeen diagnostikoa eta plana. - Gazteak eta administrazioa hobe harremantzeko lanketa. - Kultur etxea liburutegi bihurtzeko lanketa herritarrekin. |
| <p>2 Zaintza komunitarioa, adinartekotasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> - Uzturre eguneko zentroa osatu eta aberastu. - Abegi aterpea ireki. | <p>4 Bertakoa, Tolosakoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azoka bultzatzeko egitasmoei jarraipena. - <i>Gogoko</i> eta <i>Gogoko express</i>. | <p>7 Indarkeria matxista eta LGBTBI-fobiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haur, nerabe eta gazteekin indarkeria matxista lantzen jarraitu. |
| <p>+ INTERSEKZIONALITATEA eta TRANSBERTSALITATEA</p> | | |



III ATALA. Zer beste planteak genezake, ahal dela 2022ko aurrekontuetan kontuan hartzeko?

Hirugarren atal honi eman nahi izan diogu indar gehien, bileran.

Horretarako, parte hartu duten pertsonak 7-1 fokuetan banatu dira, talde anitzak eratuz –herritarrek, teknikariak, politikariak-. Eta guztiei egiteko bera jarri diegu: zer beste planteak genezake 7+1 arreta-guneei erantzuteko, ahal den heinean 2022rako aurrekontuetan kontuan har dadin?

Foku bakoitzean ideia edo proposamen desberdinak jasotzera heldu gara: batzuk nahiko zehatzak dira; beste batzuk, berriz, garapen handiagoa eskatzen dute. Edozein kasutan, bat gatoz aurrera begirako lan-ildo interesgarrien haziak direla.

Zer beste planteak genezake 2022ko aurrekontuei begira?

1. Administrazioaren arintasun- eta gerturatze- beharra

- **UDATE zerbitzua indartzea**, eta bertan herritarren eskura dagoen informazioa eguneratuta mantentzea. Honek baliabideak eska ditzake.
Asko baloratzen da pandemia ostean aurrez-aurreko zerbitzua berreskuratu izana; baita aurrez-aurrekoan lanean diharduten langileen profesionaltasuna eta jarrera ere.
Ildo berean, aipatu da tramite asko digitalki egiteak arrakala digitala areagotzea dakarrela. Plantea liteke aurrez-aurreko akonpainamendua behar duten herritarrei begira, UDATEn paper hori jokatuko duen norbait egotea bereziki? Zuzeneko arreta+akonpainamendua.
- **Zerbitzu-gida bat osatzea**, formatu digitalean ere egongo dena, herritarra Udalera doanean bere beharra bideratzea errazagoa izan dadin. Zerbitzu-gida lantzeko EUDELen eskutik egitea bila genezake, behar hau udal askok partekatzen dutelako; eta agian irizpide komunak jarraituz landu daiteke.
- Aldiro Udalaren komunikazioa, gardentasuna, hurbiltasuna... neurtuko duen **kanpo-auditoretza bat** egitea.
- **Lankidetzak**: bistakoa da Udalak beste eragile askorekin, herritarrekin... lankidetzan aritu behar duela, ditugun erronkei aurre egiteko. Horretan, ordea, ikasi egin behar dugu.

2. Zaintza komunitarioa, adinartekotasuna

- Tolosan **zaintza komunitarioaren arloan lanean diharduten eragile eta ekimen desberdinak ezagutarazi**: Adinkide, Mugi, Tolosaldea Lab, Zuloaga Txiki... Ezagutzera emateak, gainera, lotura berriak erraz ditzake.
- **Berazubirako planteatutako proiektu pilotuari forma eman eta abiarazi**. Berazubi Tolosaren lagin txiki baten modukoa da; bertan esperimentatu liteke zaintza asistentzialetik komunitariorako urratsa nola eman. Nola? Oraindik ez dakigu, elkarrekin eraiki behar dugu.
- **Gazteekin: "Zurumurrak" egitasmoari babes eman, eta lotura berriak bilatu**. Udaleko inmigratio teknikariarekin eta Tolosaldea Garatzenekin lankidetzan, egitasmo honek kultur aniztasuna lantzen du, bertakoa aberasten eta biziberritzen duen balio gisara.
- **OHARRA**: azpimarratu da Udalak aro honen inguruan badituela beste 2 egitasmo aurreikusita, 2022rako:
 - Esku hartzeko zerbitzua indartzea, familiei zuzenduta.
 - Zaintzaileak zaintzeko proiektu bat.

3. Osasuna eta bizi-ohiturak

- **lurramendiko berdegunearekin zer egin daitekeen aztertzeko lanketa bat garatu**. Plan orokorraren garapenarekin, lurramendiko berduneak Udalaren eskuetara pasako dira. Nola jarri balioan espazio horiek? Zertarako? Herritarrekin ere landu.
- **Espazio libreetan ekintza gehiago antolatu** –adibidez, kultur ekintzak-. Zumardi txikian (eraberritu ondoren), edo herriko beste plaza edo espazio irekietan.
- **Kirol-instalakuntza gehiago egokitu aire librean** –adibidez boleibolerako pista bat, kalisteniko gun bat...-.
- **Mugikortasuna**: oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari lehentasuna eman, orokorrean eta bereziki herriko zenbait eremutan –Rondilla, Zumardi Txikia-.
- **Bizikletaren eta oinezkoen azpiegiturak indartu**. Zehazki: bizikletentzako aparkaleku estali gehiago, adibidez lokal hutsak eskuratuz edo alokatuz? (Iruñean bada antzeko esperientziarik)
- **Patinete, bizikleta, oinezkoen arteko bizikidetza hobetzeko kanpainak landu**, arriskuak ekiditeko. Ordenantza bat lantzen ari da Udala.
- **OHARRA**: azpimarratu da Udalak baduela aurreikusita **Zumardi-Txiki** herritarrentzako espazio libre bezala egokitzea. Eta egitasmo horrekin aurrera egitea komeni dela.

4. Bertakoa, Tolosakoa

- **“Plazatik plazara”, kultura Tolosako (herrigunea zein landa eremua) plaza eta erreferentzia-eremu desberdinetara atera.** Egitasmo honek lotura desberdinak eragin ditzake landa-eremuarekin, auzoekin elkarlana, ingurumena eta garapen ekonomikoa uztartzea...
- **Emari co-working espazioa indartu:** ekintzaileei akonpainamendua eta jarraipena eman enpresa sortu aurretik, abiatutakoan eta martxan daudela.

5. Aldaketa klimatikoa eta kontsumo-ohiturak

- **Kontsumo-maila murrizteko sentsibilizazio-kanpaina jarraiak egin,** kontzientziak pizteko: energia, bertakoa kontsumitzearen aldeko deia...
- CO₂ xurgatzaile izatearen begiradatik, **Tolosako landa eremuaren azterketa egin** (eremu publiko eta pribatuak barne). Horrek ekar lezake, adibidez, potentzial handiko lurrik babesteko plangintza baten beharra.
- **Tolosan –edo Tolosaldean- eskala txikiko energia berriztagarrien autosorkuntza bultzatzeko egon daitezkeen aukerak aztertu.** Hau eremu publikoaz haratago doa, eta agian beste eragile batzuen lankidetzara eska dezake –garapen agentzia, enpresak, bizilagunen komunitatea.... San Esteban eremua bera izan liteke aukera bat.
- **OHARRA:** orohar, klima-aldaketak suposatzen duen erronkarekiko motelegi goazela aipatu da; eta konplexua izanik ere, publiko-pribatuko lankidetzak esploratzea ezinbestekoa dela.

6. Gazteak

- **Haur-nerabe eta gazteak, eta kultur ekitaldien kontsumoa:** pandemiaren ostean kontsumo ohituretan aldaketak ikusi dira (nabarmena, adibidez, zinemaren kasuan); baina zergatien inguruko ezagutza falta zaigu. Horren lanketa bat egin, haur-nerabe-gazteekin batera. Modu osagarrian, neurri batzuk ere froga daitezke bitartean, eraginik izan dezaketean aztertzeko: adibidez, lagunduko luke haur-zinemaren bonoak eskaintzeak? Edo prezioak merketzeak?
- **Denbora libre:** herriko ikastetxe desberdinekin lankidetzan, urtean zehar espazio komunak sortu, guztiei irekiak.
- **Gazteak eta etxebizitza:** emantzipazio-eredu desberdinak ezagutzera eman eta esperimendatzeko proiektu piloturen bat Tolosan gauzatu daitezkeen aztertu, lehenik egon daitezkeen adibideak ezagutzuz.
- **Aisi-hezitzaileerako aukerak zabaldu:** espazio berriak sortu? Daudenak birmoldatu?

7. Berdintasuna, indarkeria matxista eta LGTBI-fobiak

- Haur, nerabe eta gazteen plana osatzeko **diagnostikoa eta plana idazterakoan, berdintasuna** ere integratu eta landu, lan-lerro berriak esploratzeko.
- Ikastetxeetan haur, nerabe eta gazteekin indarkeria matxista lantzeko egiten diren **formakuntza-tailerrak eskolatik kanpora atera**, erakargarriago egin eta "seriotasun" kutsu hori gainditzeko.
- Gazte eta nerabeez gain, **helduentzako ekimenak antolatu eta Tolosatzen Eskola Irekiaren programazioan barneratu** –adibidez, mahai inguruak-.

Amaitzeko, azken gogoetak

Partaide guztiei bakoitzaren eta taldearen ekarpena eskertu diegu. Izan ere, gaurkoan landutako ideiek, batzuek ia modu zuzenean, eta beste batzuk sakontasun gehiagorekin landu ondoren, Tolosa hobetzeko lagungarriak izateaz gain, aurrekontuetan tokia izan dezakete. Orain Udal barruan dagokie lekukoa hartzea, 2022rako aurrekontuak prestatzeko azken txanpan.

Horretaz gain, 2 hausnarketa interesgarri egin dira:

Parte hartzaileen ekarpenak

Batetik, bertaratutako herritar-kopuruaz: gutxi izan dira gerturatu diren herritarrak, nahiz eta saioaren hedapena bide desberdinetatik egin den. Desafekzio orokorrako baten erakusgarri izan arren, merezi du parte hartzearen inguruko hausnarketa bat egiteak Tolosan.

Bestalde, metodologiari dagokionean, aipatu da fokuak edo arreta-guneak geroz eta zehatzagoak izan, errazagoa izan ohi dela proposamen edo ideia konkretuetara iristea.

Eskerrik asko!

Mila esker, bakoitzak bere tokitik eta paperetik, emankorra eta atsegina izan den saioa eraikitzen laguntzeagatik.

Hartu eta emanekoan, arratsaldeari zukua aterata goaz, Tolosa erdian jarrita.

Eskerrik asko guztioi!

Saioaren laburpen grafikoa

